



## Udaletxean aldi baterako egokitutako sarbide berria

Udaletxeko teilatua konpontzeko, iragaitza egiteko eta bulego guztiak irisgarriak izateko igogailua jartzeko egiten ari diren obrak direla kausa, eraikinean sarbide berria egokitu da.

Aurrealdeko atea ireki da udaletxera sartzeko, eta zabalik egonen da lanak iraungo duten 15 astetan zehar.

Jendeari arreta egiteko ordutegia betikoa izanen da, hots, astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 bitartean.



## Cederna Garalur elkartearen urteko balantzea

Pasa den urtarrilaren 22an ospatu zen Agoitzen Cederna-Garalur Garapen Agentziako urteko jarraipen bilera, 2018. urteko balorazioa egiteko eta 2019. urteko lan leeroaz informatzeko.

Nafarroako Landa Garapen programako Leader proiektuaren barnean martxan jarritako jarduerak azaldu ziren bileran. Honakoak: Gizartetxea (momentu honetan gauzatzen ari da), El Irati S.A.-ren inguruko erakusketa gunea (dirulaguntza jasoko duen ebazpena jasotzeko). Eskualdeko bilkuran gai gehiago agertu ziren, Aurre-pirinioan gertatzen ari den biztanleri jaitsieraren inguruko problematika, Agoitzek ere pairatzen duena (biztanle kopuru hazita ere), esaterako. Langabezi tasa jaitsi zela adierazi zen; jaitsiera lan arlo guz-

tietan eman da, besteentzako lan egiten dutenen artean nahiz lan bultzatzaileen kasuan, adin talde guztietan eta bi sexuetan, gainera. 2018. urtean zehar, Agoitz izan da langabezia gehien jaitsi den herria eta proiektu gehien sortu dituen.



Sektore ekonomiko guztiak aztertu ziren, industria, turismoa eta zerbitzuen alorretan bereziki erreparatuz. Horretaz gain, ingurunearekin, ondarearekin eta abarrekin lotutako beste proiektu enblematiko batzuez informatu zen: Iratiko treneko Bide Naturala, Pirinioetako galtzada erromatarra, Ekaiko Zerrategia auzoa, Solano izandakoaren instalazioak, enpresa mintegiak, energia aurrezteko proiektuak (Agoizko argiteri publikoa) edo Artzibar eta Orozeko goialdeko urtegiak.

Laburbilduz, 2018. urtean 133 proiektu pasa ziren agentziatik, 76 pribatu eta 57 publiko (guztiak Cederna-Garalurren eragin eremuko udalek bultzatutakoak).

## Ikastetxea irisgarria egiteko obrak, behar bereziak dituen haur bat dagoelako

Duela hilabete batzuk gure herrira errefuxiatu batzuk ailegatu ziren, Gurutze Gorriak, Agoizko Udalak eta Nasuvinsak martxan jarritako harrera egiteko programari esker. Gertakizun horrek agerian utzi du herrikoen eta Agoizko instituzioen izaera integratzailea, eta herrikoen elkartasuna.

Agoizko Udaleko langileek obra txiki batzuk egin dituzte eskolako aurrealdeko patioan dauden moduluetan, behar bereziak dituen haur siriarrak hara joaten delako. Duen ezintasuna dela kausa, ezin da ibili, eta gurpildun aulkia erabili behar du. Bere ikasgela irisgarria egiteko, metalezko malda jarri da. Komuneko konketa jaitsi da ere, eta aldatzeko leku bat egokitu da. Horretaz gain, atea zabaldu da, gurpildun aulkia sartu ahal izateko.



## Bebeteka zerbitzu berria

Bebeteka izenak ninientzako irakurketa bultzatzeko guneari erreferentzia egiten badio ere, oso bestelakoa da zerbitzu berri honen helburua (gaur egun herriko liburutegiak ninientzako txoko bat dauka). Lekua 0-3 urte bitarteko haurrentzako egokitu da, neguko arratsalde luzeetan leku zabal, seguru eta dinamikoa izan dezaten, haien lagun eta anai-arrebekin egon eta jolas daitezten. Bebeteka berriak gurasoentzako gunea ere izan nahi du, bertan haien bizipenak eta burutazioak eta kezak parteka ditzaten.

Lokala udaletxeko beheko solairuan dago, eta astelehen-osteguna bitartean dago zabalik, 17:30etik 19:00etara. Gurasoen artean antolatzen da haurren zaintza, txandaka. Doaneko zerbitzua da, eta erabili nahi duten familia guztiei dago zabalik. Eskatzen den baldintza bakarra bertan dagoen materiala zaintzea da, eta beti heldu bat egotea haurra zaintzeko. Agoitzen sortutako leku berriak txikiak erabili ahal dute irakurtzeko, margotzeko, jolasteko eta harremanetan jartzeko.



## D ereduan eskolatzeko kanpaina

«No importa de donde vienes, sino a dónde vamos. Apuesta por la enseñanza en euskera y regálales el viaje de su vida» (gaztelaniaz) eta «Aspalditik gatoz, urrutira goaz» (euskaraz) dira otsailaren 4tik 8ra bitartean zabalik egonen den 2019-2020 ikasturteko aurrematrikula egiteko kanpainaren lemak.

Agoizko Udalak, Nafarroako beste toki entitateekin batera, parte hartzen du kanpaina honetan. Kanpainak Nafarroako Gobernuaren (Euskarabidea) dirulaguntza jaso

du. Haren helburua da gurasoei euskarazko hezkuntzaren, hots, D ereduan, interesgarritasuna eta balioa transmititzea: giza eta hizkuntza alderdietan, formakuntza teknikoaz gain. Eredu honetan familiek laguntza aktiboa jasoko duten ikas prozesu osoan zehar. Zentzu horretan, gurasoek Euskara Zerbitzuaren laguntza jaso ahal izanen dute ikaspena errazteko baliabideak eskuratzeko. Gainera, agoizko udalak euskara erabiltzeko baliabide asko jarri ditu, haien ikaspen prozesuan oso lagungarri

gertatuko zaizkienak, hizkuntza bere inguruan jasotzeko era ludiko batean.



## Lehen sorospenen inguruko tailerra

Agoizko Osasun Etxeak, Udalaren laguntzarekin, lehen sorospenen eta oinarrizko RCP bi tailer eman zituen.

nika horiek geldialdia izan duen pertsonari zenbat eta lehenago aplikatu orduan eta bizirauteko aukera gehiago izanen ditu.

Bakoitza adin talde jakin bati zuzendutakoa zen, eta lau saiotan egin zen. Ikastaroetako formatzaileak Osasun etxeko erizain taldeko Ana Fernández Urdaci eta Elena Santesteban Etxauri izan ziren.

Mintegien helburua larritasun medikoko egoera batean, edo istripu bat emanez gero, zer egin dezakegun jakiteko oinarrizko ezagupenak edukitzea da. Horretaz gain, osasun laguntza profesionala behar duten egoerak identifikatzen jakitea da. Bertan parte hartu zutenek, gainera, bihotz-biriketako geldialdi bat gertatzen denean beharrezkoak izaten diren oinarrizko bizitza euskarrien teknikak ikasi zituzten. Tek-



## Sareanek jostailuen bilketa egin du

Aurten ere Sarean kolektiboak arrakastaz burutu du Eguberrien aurretiko jostailu bilketa kanpaina. Kartelen eta sare sozialen bidez jakinarazi ziren biltzeko lekuak

eta egunak. Kanpainaren inguruko informazio zehatza jaso ahal izateko, fitxa informatiboak eskura jarri ziren bi ikastetxeetan, gizarte zerbitzuetan eta osasun etxean.

Kanpaina honetan jostailu gutxiago jaso badira ere, 25 lote antolatu eta banatu dira, hots, pasa den urtean baino gehiago, Tafallatik heldu zen kolaborazio handi bati esker.



Bilketa Sarean-ek azaroan antolatzen duen bigarren eskuko azokaren egunean hasten da. Taldeak objektuek bizitza luzea izan dezaketenez ohartarazi nahi du, kontsumo arduratsua bultzatu eta zaborra guxitu nahi du.

Sarean-ek eskerrak eman nahi dizkie txikitxoek esku artean jostailu bat dutenean erakusten duten irribarra agertaraztea posible egin duten herriko guztiei.

## “Oholtzara salto a escena”

Nafarroako 27 udalerrietako 5.834 ikaslek parte hartuko dute «Oholtzara Salto a Escena» izeneko antzerki programan. Pasa den ekainean martxan jarri zen ekimen honetan Agoitzek ere parte hartu du.

Proiektua Nafarroako Antzerki Sareak (Agoizko udala kidea da) bultzatu du, eta 172.000 euroko aurrekontua dauka, horietako 100.000 obra Social «la Caixa»-Nafarroako Kutxak finantzatu duena eta gainerakoa parte hartzen duten 27 udalek jarri beharko dutena.

Ekimenaren helburua arte eszenikoak gazteei hurbiltzea da eta haiek protagonista bilakatzea. Horretarako gazteen beharrak eta iradokizunak jaso dira bitartekaritza bidez.

Antzerki konpainiek lehen harrimana egiten dute herriko institutuan, eta bertan antzerki esperientzia bat izatera gonbidatzen diete. Ondoren, genero bortizkeria eta sexu aniztasuna ardatz duten

obrak ikustera joaten dira. Bukatzeko, eztabaida bat izaten dute eszenatokian ikusi duten guztia- ren inguruan.

Dantzaren kasuan, dantzari profesional talde bat aste batean zehar egonen da ikastetxeko ikasleekin, eta elkarren artean dantza garaikideko koreografia bat prestatuko dute. Elkarbizitzaren bidez dantza garaikidearen lengoia hurbil sentiarazi nahi zaie.

Adierazitakoaz gain, sortzaile berrientzako eta ikusleentzako

antzerki tailerrak antolatuko dira zenbait herritan. Interpretazioaren profesional nafar batzuek talde horiek zuzenduko dituzte haien ibilbidearen hasieran.

Bukatzeko, gustu berriei ere erreparatzeko, 'escape room' esperientziak bultzatuko dira. Aktibitate berria da, publiko berri bati zuzendu nahi dena, eszena espazioetan oso erakargarria dela kontuan hartuta.



## Agoitzek eta Zangozak artea elkar trukutzen dute

Urtarrilean zehar ikusgai egon zen Agoitzen eta otsailaren 17ra

arte Zangozan pintura erakusketa berezi bat. Bi herriak elkartu dira



«IntercambiARTEz» izeneko egitasmoan. Aurrekaririk ez duen erakusketa da, zeinetan bi herrietako artistek ikusgai jarri dituzten sentimenduak eta pinturaren bidezko begiradak. Lanak bi herrietako pintura tailerretan egindakoak dira, Agoitzen Alodia Lusarretaren zuzendaritzapean eta Zangozan Alfonso Ascuncerenean. Erakusketak truke kulturalerako loturak sorrarazi nahi ditu, esperientzia artistikoak eta sortzaileak bultzatzeko.

## Kafe Kontzertuetako IX. zikloa burutu da

Urteko azken hiruhilabetekean, Bilaketak antolatuta, Kafe Kontzertuen IX. edizioa egin zen Agoizko Kultur Etxeko José Hierro aretoan. Asteburuari bukaera ezin hobea emateko aukera bikaina izan da: musika, kantua eta dantzaz gozatu ahal izan da leku atsegin batean, kafea eta pastak konpartitzen.

Kontzertuak igandeetan egin ziren, 17:00etan, eta aurreko edizioetan bezala, publikoak asko disfrutatu zuen artista gazteek interpretatutako obrekin. Azken horientzako ere aukera ezin hobea da, publiko urriaren aurrean aritzen direlako, giro hurbil batean, eta horrek konfiantza hartzen laguntzen die.

Honako hau da programazio osoan parte hartu duten artisten

zerrenda eta haien espezializazioa:

Sofia Esparza (Kantua), Michel Reynoso pianijolearekin; Eneko Urrestarazu (tronboia), Ilazki Iturralde (akordeoia), Eneko Aranguren (perkusioa), Paula Ayerra flautajolearekin, Ana Simón (zeharkako txirula), Ángela Jaurrieta (dantza espainiarra), Irati Goñi (biolontxelo), Daniel Munárriz (perkusioa), Fermín Aramendía (bibolina), Miguel Ayerra (klarinetea), Víctor Lardiés (klarinetea), Carolina Luquin (kantua), Francisco Deheza (bibolina), Andoni Goldaracena (tronboia), Jon eta Maider Garaikoetxea (saxofoia), Hiram Vega (pianoa), Naiara Pérez (bibolina), Areta Senosiain (bibolina) eta Carlos eta Marta Díaz de Cerio (dantza klasiko).



## Kultur balantzea

Eguberrietan izandako programazio anitza Erregeen Kabalkadarekin bukatu, urtarileko kultur agendak ohiko bere erritmoarekin jarraitu zuen.

Agoitz eta Zangozako pintura ikasleen artean antolatutako «IntercambiARTEz» erakusketaz gain, Kultur Etxeko sarreran ikusgai jarri ziren San Migel ikastetxeko ikasleek Gurako Elkartek antolatzen duen Eguberrietako lehiaketarako egin zituzten txartelak.



Urtearen hasiera honetan antzerkirako lekua izan da ere. Yllana konpainia etorri zen gure herrira «Gag Movie» obrarekin. Pelikula baten filmaketa eroa aitza hartuta, ospari, irudiari eta zinerari buruzko satira barregarri bat egiten da bertan. Barrez lehertu ziren keinu komedia honetara joandakoak.